

Europar Batasuna eta errepresioa



ASKAPENA

Euskal Herriko
erakunde
internazionalista

www.askapena.eus

0- Sarrera

Honako txosten hau azken urteetan lantzen ari garen Europar Batasunaren aurkako kanpaina elikatzeko helburuarekin osatu dugu. 2022an “Next Generation” funtsen inguruko analisia argitaratu genuen eta oraingo hau errepresioan zentratuko dugu, errepresioaren inguruko azterketa egiteaz gain, egungo testuingurua ikuspegi honetatik ulertzeko gakoak eskaintzen.

Krisi testuinguru honetan gai honek berebiziko lehentasuna du, eta garrantzitsua deritzogu bai Euskal Herrian, bai Europako beste herrialdeetan ere gai honi heldu eta azterketa kolektibo sakon bati heltzea.

Honetarako marko teoriko gisa errepresioa sistema gisa ulertzearen beharraz arituko gara, eta ondoren Zuzenbideak dinamika politikoan duen funtzioaz arituko gara. Behin hau eginda terrorismoaren inguruko hausnarketa egingo dugu, doktrina antiterroristaren bilakaeraren azterketa eginez. Zuzenbideari eta lege prozedurei arreta berezia jartzen badiugu ere, une oro kontutan ditugu burgesiak langile klasearen kontra aritzeko erabilitako bestelako tresnak ere. Hau guztia krisiaren teoria

marxistarekin lotuta irakurri beharko dugu, beraz.

Azkenik, Euskal Herrira ekarriko dugu hori guztia, izan ere, gure historian aipatu jarduera errepresibo guztiak topatuko ditugu. Oraindik ere, nahiz eta, gaur egun, haietako asko ez diren aplikatzen, hor daudela gogoratzea komeni zaigu, edozein unetan aktibatuak izateko prest baitaude.

Argi izan behar dugu, Estatuak, burgesiaren indarkeriazko tresnek, erasora joko dutela, Euskal Herriak eta edozein herri langilek bere askatasunaren bidean urratsak eman ahala. Elkarbizitza posiblerik ez da kontraesan etengabea dauden bi klaseen artean; etengabe gogorarazten digu hori burgesiaren errepresioak, are gehiago bere izaera biolentoenean ageri denean. Analisi honetan Europar Batasunarekin ere egin nahi dugu lotura; izan ere, eskualdeko burgesia hegemonikoaren interesak defendatzen dituen instituzioa da eta, une honetan, burgesia estatubatuarrarekin dago lerrokatuta. Adierazgarria iruditzen zaigu, krisi sistemiko betean, instituzio horretaz ere aritzea analisi honetan, baita NATO erakunde kriminalaz ere.



1-Errepresioaren

ulerkera sistema gisa

Maiz erabiltzen dugun kontzeptua bada ere, oso gutxitan hartu dugu beharrezko denbora berau aztertu eta zeri buruz ari garen ulertzeko. Funtsean, hau ere bada errepresioaren helburuetako bat: erreprimitua, gertatzen ari zaiona erabat ondo ulertu gabe, defentsiban jokatzera bultzatzea, bere egitasmoak gara ditzala oztopatuz edo ekidinez. Halaber, gure indar eta energia guztiak errepresioari erantzuteko erabiltzen baditugu, ez diogu tarterik eskainiko hura aztertu eta gainditzeko estrategiak pentsatzeari. Espiral antierrepresiboan sartzea esaten zaio horri.

Horregatik da hain funtsezkoa errepresioa aztertu eta behar bezala ulertzea. Eta honetarako premisa bat argi izatea garrantzitsua da: klase borrokaren erdigunean kokatzen den elementua da errepresioa.

Maila ideologikoak garrantzia handia du. Alfonso Sastrek esan bezala *“terrorismo esaten zaio ahulenen gerrari, eta gerra esaten zaio -baita gerra garbia ere- indartsuenen terrorismoari”*. Hortik abiatuko gara azaltzen dugunean terrorismo langile klasearen borrokari esaten zaiola, eta gerra edo errepresioa, berriz, burgesiaren eta klase kapitalisten indarkeriari. Lehenik eta behin zera ondoriozta dezakegu: gure borroka ez dela ondo ikusia den zerbait, jendartearen hedatuta baitago zerbait “txarra”, “kaltegarria”, “ordena sozialaren kontrakoa”, “bakearen kontrakoa”, “bizikidetzaren aurkakoa” dela. Modu honetan, ideologikoki dominazio kapitalista eta hortik eratorritako zapalkuntzak

legitimatzeaz eta normalizatzearaz gain, haiei aurre egiteko bideak eta aukerak kriminalizatzen ditu *de facto*, abiatu baino lehen.

Garrantzitsua da errepresioa bera sistema gisa ulertzea eta ez modu estatiko, sektorial, isolatu eta ez sistemikoan. Errepresioa sistema gisa ez ulertzeak polizia indarkeriatzat soilik ulertzera eramanez gaitzake, edo asko jota bestelako instituzio errepresibo baten interbentzioa dela ikusten da, eta, horrela, errealitatearen konplexutasuna aztertzeke gaitasuna galduko dugu.

Sistema errepresiboaz modu dialektiko, mugikor, kontraesankor, totalizatzailerik eta sistemikoan pentsatu behar da. Honela, botere batek garai jakin batean eskura dituen tresna material eta sinbolikoen osotasuna hartuko dugu kontutan. Sistema kapitalistaren baitako azpiegituraren gainean ari diren gainegitura juridiko-politikoa eta ideologikoa aintzat hartuta soilik izango dugu errepresioa bere osotasunean eta une historiko bakoitzean ulertu eta aurre egiteko gaitasuna.

Estatuak errepresioa ez du tresna bakar batez soilik gauzatzen, Estatuak bera da bere osotasunean etengabeko ekinean ari dena, errepresio horren onurak jasotzeko. Beste modu batera esanda, klase esplotatzaileak produkzio baldintzei eusteko eta klase esplotatua indarrez zapalduta mantentzeko erabiliko du Estatuak. Dena den, egun garrantzitsua da Estatuaz gain dauden botere paraestatala eta Estatuaz kanpoko botereak aintzat hartzea. Botere paraestatala diogunean, Estatuarekiko gutxi gorabeherako dependentzia duten instituzioez ari gara; izan laguntzen bidez, izan aurrekontuen bidez, izan informazio eta helburuen bidez... Estatuaz kanpoko botereak, berriz, harekiko legalki

urrunago egonda ere, menpekoak dira eta hark beharrezko dituen informazio eta datuak eskaintzeko gai dira. Biak ala biak hartu behar dira kontuan.

Jendarte kapitalistan Estatuaren funtzioak honela laburbil daitezke modu oso orokor batean: 1) erreprodukziorako baldintza materialak ezartzea (lanaren babesa eta definizioa, gizarte segurantzak, osasun artatzea...); 2) lan prozesurako motibazio egokiak sortzea (aparatu ideologikoa, familia ezartzea sozializazio burgeserako prozesua garatzeko funtsezko eragileetat...); 3) lan indarraren eskaintza arautzea (lanbide heziketaren funtzioa sistemaren koltxoi gisa, kalifikazio eta berkalifikazioa, mugikortasuna, hautaketa...).

Dena den, Estatuaren gaitasunak gutxietsi ezin baditugu ere, ezin dugu ondorioztatu Estatuak guztiz ahalalduna dela. Analisi egokia egin ahal izateko, kontutan izan behar ditugu Estatuaren barne zailtasunak eta oztopoak berrikuntzak ezartzeko. Estatuak bere denbora behar du sistema errepresiboa aldatu ahal izateko; barne oztopoez gain, inertzia burokratikoak, interes sektorial eta korporatiboak, etb. gainditu behar ditu.

Baina, zer da sistema errepresiboa?

1997an Iñaki Gil de San Vicentek *“Sobre el nuevo sistema represivo”* lanean adierazi zuen moduan, *“Sistema errepresiboa da maila, eremu, espazio eta bitarteko anitzak integratzen dituen osotasun estrukturatua; desberdinak izan arren, osotasunarekiko funtzionalak dira osagarriok”*. Haratago, *“Sistema errepresiboak eragiten du osotasuna zatien gainetik egotea eta osotasunak perspektiba handiagoa duen helburu*

amankomuna izatea, zatien helburu zehatzen gainetik. Jakina, Estaturik gabe, bere botere zentralizatzaile erabakigarriak gabe, ez legoke sistema errepresiborik. Estatu ahul edota zatikatu batek ezin du sistema errepresibo indartsu, koherente eta helburu argidun bat ezarri. Errepresio fisiko basati orokortua inposatu dezake, eta inposatu egiten du, baita autokolpea ere; baina, orduan, sua itzalita ere, sutea berpiztu dezaketen txinpartak pizturik uzten ditu. Eraginkortasun errepresibo handiena lortzen da, hain zuzen ere, sistema batek bere gain hartzen dituen neurri ekonomikoak, politikoak, kulturalak, polizialak, etab. eta honek eskatzen du Estatuak ondo funtzionatzea, minimoki bada ere”.

Estatuak, beraz, modu argi batez indarkeria erabiltzen duenean langile klasea kontrolatzeko (teknika garesti eta ezegonkortzailea, bestalde), maiz bere ahulezia agerian uzten du. Benetan indartsuak diren Estatu aparatuek modu burutsuan bestelako bitartekoak erabiliz kontrolatzen dute langile klasea. Errepresio egokiena ikusten den ez den hori da, zapaldutakoak zapalduta egotera “euren kabuz” bultzatzen dituen hori, horrek ahalbidetzen baitu Estatuaren izaera biolentzia agerian ez uztea eta “bake soziala” bermatzea. Bestela esanda, asimilazioa.

Errepresioa, beraz, dinamika anitz eta konplexua da, polizia eta epaileen ekinbidetik haragokoa; dinamika lauakoa:

1. Ezarritako botereari komeni ez zaiona kontzientzia kolektibo eta indibidualetik ezabatzeko praktika sorta da.

2.Asmo eta aldarrikapen askatzaileak baretu eta sisteman integratzeko, garatzen diren praktikak eta bitartekoak dira.

3.Borroka eta erresistentzia indibidual zein kolektiboen kontentzioa eta oztopatzea da helburua, indarkeria fisiko, psikologiko, kultural

eta linguistiko, klasista, nazional, etiko-moral, sexual eta arrazistaren bitartez.

4.Zapaltzaileek eta zapalkuntzetatik eratorritako onurak lortzen dituzten horiek hobari zehatza eskuratzen dute, material zein sinbolikoa, haien bizi baldintzak hobetuz.



2- Zuzenbidea, aparatu judiziala eta poliziaren kasu zehatza (gainegitura juridiko- politikoa)

Emandako errepresioaren ulerkera etsaiaren jardunbide osoa dela esan dezakegun arren, analisi honek ezin dio horri guztiari erreparatu. Globalizazioarekin Estatuaren desagerpenaz hitz egiten bada ere, Estatuak errepresioa burutzeko ardura izaten jarraitzen du, hori dela eta honako honetan, Europar Batasuna eta NATO bezalako egiturak alboratu gabe, Estatuaren biolentziaren garapenari erreparatuko diogu: Zuzenbideari, poliziari eta aparatu judizialari, bereziki.

Karl Marxek eta Friedrich Engelsek “*Manifestu Komunistan*” Zuzenbidearen ulerkera oso zehatza eskaini zuten, *lege izatera jasotako burgesiaren klase-nahimena* dela baieztatuz.

Batetik, boterean daudenek ezartzen dituzte legeak, eta bestetik, boterean daudenei egozten zaie legeok betearazteko indarraren monopolioa. Egungo jendarte kapitalistan Estatuaren bidez

egiten da; lehenik botere legegilea dugu (legeak idatzi eta erabakitzeko ardura duena: legebiltzarrek...), bigarrenik betearazlea (gobernua, legebiltzarretan hartutako erabakiak betearazteko ardura duena), eta azkenik judiziala (legea betetzen dela zaintzen duena).

Zuzenbidearen nahiz Estatuaren teoriko formalenen aburuz, Estatuak indarkeriaren monopolioa du, bere boterea ezartzen duen eremu geografikoan, eta indarkeria hori Zuzenbidearen bidez arautzen da. Eta araututako hori betearazteko eta aipatu nahimen hori babesteko, aparatu judiziala eta poliziak dira tresna nagusia.

Dena den, legeek, “burgesiaren nahimenaren egikaritzea” badira ere, errealitate dialektikoari erantzuten diote, eta langile klasearen borrokek moldaketak ekar ditzakete. Esan bezala, garrantzitsua da argi izatea Estatua ez dela guztiz ahaldua, eta legeak moldagarriak direla langile klasearen interesetan. Horrek, jakina, ez du ordeztzen errotiko eraldaketaren beharra, funtsean dagoen gatazka gainditzeko modu bakarra. Taktika eta estrategiaren arteko harremanaren eta helburuen arabera izan beharko da hori, dinamika politiko orokorrean txertatuz.



3- Zuzenbidea dinamika politikoa

Mobilizazio eta protestaren aurrean, bi aukera daude: eskakizunak onartzea edo errepresioa (litekeena da bien arteko konbinazioa gertatzea, protestako elementu iraultzaileak deuseztatzeko edo neutralizatzeko). Eta emaitza bi aldeen arteko indar korrelazioaren arabera izango da. Horrek egiten du errepresioa ezinbesteko elementu, horren arabera irekiko baititu burgesiak bere posizioari eusteko edo indartzeko aukerak.

Zuzenbidea horretarako funtsezko tresna da. Isunak, kartzela, diru laguntzen etetea, zentsura informatiboa, protestak egiteko baldintzak zailtzea, kaleratzeak enpresetan... hamaika dira aukerak protestak erreprimitzeko, tartean lanketa ideologikoa ahaztu gabe, etorkizuneko protestak ekidin eta jendarte geroz eta asimilatuagoa lortu asmoz.

Esan bezala, Zuzenbidea langile klasearen aldeko eskubideak lortzeko moldagarria den arren, aldaketarako aukerak indar korrelazioaren arabera izango dira.

Une honetan, kontutan izan behar dugu krisiaren teoria marxista eta irabazi tasaren beheranzko joera, berekin baitakar langile klasearen kontrako legeen onarpena, burgesiak plusbalioa bereganatzen jarrai dezan. Argi izan behar dugu burgesiarentzat behar beharrezkoa izango dela langile klasea geroz eta esplotatuago izatea, irabazi tasari eusteko, eta, lan horretan, Zuzenbidea izango da gako nagusietako bat, bertan islatuko baita esplotazioa, lege forma hartuta.

Eskubide murrizketen ondorioz, suposa daiteke langile klaseak borrokari ekingo diola bere eskubideen defentsan, baina, edozein antolaketa legez debekaturik badago eta Estatuaren tresneria legal, polizial eta judiziala horren garatua badago (bereziki haien legitimazioa eta disidentziaren kriminalizazioa jendartean hedaturik bada), argi dago indar korrelazio horretako egoera zein den. Ondorioz, zapalkuntza errazagoa izango da.

Marxek, 1830eko Bruselako eta 1848ko Pariseko gertakari iraultzaileen harira, ondorioztatu zuen miseria eta pobreziaren gorakadak proletalga iraultzaren besoetara bultzatuko zituela ezinbestean. Esperientziak erakutsi digu pultso hori behar bezala antolatu ezean, ez duela zertan hala izan.

4- Terrorismoa aitzakia gisa langile klasearen kontra aritzeko: Etsaiaren Zigor Zuzenbidea

Egia bada ere Estatu burgesek mekanismoak dituztela langile klasearen antolakuntza eta borroka erreprimitzeko, politika antiterroristei esker inpunitate handiagoz jokatzeko dute, Estatuaren kontrola areagotzeko eta edozein disidentzia kriminalizatzeko tresna baitira.

Zehaztu behar da nazioartean ez dagoela adostutako terrorismoaren definiziorik. Dena den, gehienek ohiko zigor kodeetan delitu arrunt diren egitateak zerrendatzen dituzte; egitate horiek garatzerakoan dauden motibazio politikoak kualifikatu eta terrorismo izatera pasatzen dituzte.

Asko izan dira definizio horiei eginiko kritikak, dituzten hutsuneengatik eta inpunitateari atea parez pare zabaltzen dizkiotelako. Noam Chomskyk, adibidez, *“Terrorismo y Respuesta Justa”* artikuluan kritika egiten zion AEBko Gobernuak egiten duen definizioari, *“galdera asko erantzunik gabe uzten dituelako; tartean autodeterminazio eskubidea, askatasuna edo independentzia lortu asmoz (...) egiten diren indarkeria bidezko ekintzen zilegitasuna”*.

Zalantzarik gabe, politika antiterroristek eta, zehazki, horren harira garatutako Zigor Zuzenbideak Etsaiaren Zigor Zuzenbidetzat ezagutzen denaren ezaugarriak dituzte. Günter

Jakobs da doktrinaren garatzaileetako bat, eta, honen arabera, ohiko Zigor Zuzenbidearekin batera, bada beste Zuzenbide mota bat statu quo edo orden sozialaren kontra egiten dutenak zigortzeko erabili beharrekoa. Ordena soziala definitzerakoan, Jakobsek demokrazia liberalak eta horien oinarri ideologikoa den “kontratu soziala” ditu buruan; ondorioz, aipatutakoak irauli asmoz ari diren horiek etsaitzat joko ditu eta dagokien Etsaiaren Zigor Zuzenbidea ezarriko zaie.



Jakobsek Etsaiaren Zigor Zuzenbidea hiru ezaugarriren arabera definitzen du: batetik, gertatutako egitateak zigortu ordez, gerta litezkeenak (etorkizuneko gertakari hipotetikoak) zigortzen ditu; bestetik, aurreikusitako zigorrak bereziki altuak dira gainontzekoekin alderatuta (ez dago proportzionaltasunik); eta azkenik, berme juridikoak ezabatu egiten ditu. Ondorioz, inpunitatea legeztatu egiten da, are gehiago kontutan izanik terrorismo gisako terminoak zeinen ahulak eta moldaerrazak diren. Gure inguruko legedi antiterroristak aztertuz gero, ikusiko dugu ezaugarri horiek berak betetzen dituztela.

XX. mendeko 50eko eta 60ko hamarkadetan hainbat iraultza eta askapen borroka erditu ziren:

China, Algeria, Palestina, Cuba, Vietnam, Black Panther Party AEBn, Euskal Herria... Sobietar iraultzaren oinordeko zuzenak, eta urratsak, historian zehar langile klaseak burututako borroken bidean. Su haiek beste hamaika txinparta piztu zituzten: Chile, Nicaragua, El Salvador, Alemanian RAF sortu zen, Italian Brigade Rosse, Atenasen Junta Militararen kontrako erresistentzia guda piztu zen Unibertsitate Politeknikoan, Portugal, Kurdistan, Païssos Catalans, Galiza...

Horrek klase kapitalistaren hegemonia eta sistema kapitalistaren iraunkortasuna bera zalantzan jarri zuen. Eta erantzuna ere tamainakoa izan zen. Hainbat izan ziren estatu kolpe bidez edo bestela ezarritako diktadurak: Chile, Argentina... Indarrean zeuden diktadorek, Francorenak kasu, langile klasearen kontrako jazarpena areagotu zuten. Lehenagotik prestatzen ari baziren ere, ordukoak dira AEBetatik pentsatu eta agindutako Condor eta Gladio operazioak ere, adibidez. Guztiek, izan diktadorek eskaintzen zuten salbuespenezko egoerak ahalbidetuta, izan gerra zikinaren bidez, insurgentzia fisikoki desagerraraztea zuten helburu: desagertzeak, torturak, heriotza zigorrak, haurren bahiketak, militanteen kontrako ekintza armatuak, erailketa estrajudizialak, infiltrazioak, drogaren erabilera (heroina, cracka...), sarekadak eta izuaren hedapena... NATO bezalako egiturei esker garatu ahal izan zituen burgesiak aipatutako eraso guztiak, baita gerora burutuko zituenak.

Hori guztia “elementu desestabilizatzaile” edo “terroristak” desagerrarazteko aitzakiapean egin zen. Eta ondorioa izan zen 80ko hamarkadan AEBk munduko hegemonia eta potentzia bakar

izateko baldintzak sortu zituela. Europari zegokionez, insurgentziaren zati handi bat deuseztatu eta gero Gladio operazioaren bidez eta Estatuen laguntzaz, Europako eremu ekonomikoa sortzeari eta ongizate estatuarekiko errebeldeak asimilatzeari ekin zioten (eurokomunismoa adibidez). 1989az geroztik, demokrazia formalaren bidez onurak sorzitezkeenaren ilusioa ere hedatuz joan zen. Klase ertainaren ideia orduan ere asko indartu eta hedatu zen.

Klase kapitalisten diskurtso globalizatzaileen aurrean (tartean G7, G20 eta halako gailurrak), nazioarteko foro sozialak antolatzeari ekin zioten munduko eragile antikapitalistek: Sao Paulo, Seattle, Genova... European, indarrez pizturik zirauten itsasargi batzuk, Irlandan eta Euskal Herrian, bereziki.

Ez da kasualitatea garai hartan, 90ko hamarkadan, Estatu espainolak urte batzuen buruan mundu mailan garatuko zen doktrina antiterroristaren esperimientua Euskal Herrian egin izana, zehazki, Nafarroa Garaian. Garzon epailearen gidaritzapean, “dena da ETA” moduan ezagutu zen doktrina abiatu zen. Botere judiziala izan zen errepresioaren eremu hori garatzeko arduradun nagusia.

2001. urtea inflexio puntua izan zen errepresioari dagokionez. Ordura arte, hainbat legedi nazionaletan baziren legedi antiterrorista zehatzak, eta guztiek zuten salbuespen izaera ukaezina. Baina protestak nazioartekotzearekin batera, bestelako tresna errepresiboak garatu behar izan zituen klase kapitalista globalak. Carlo Giulianiaren erailketa testuinguru honetan kokatzea ezinbestekoa da, jauzi kualitatiboaren adierazle garbia.

2001eko irailaren 11n Al Qaedak New Yorkeko Torre Bikien kontra egindako erasoak bide eman zion 90eko hamarkada amaieratik garatzen hasia zen dotrina antiterrorista berriari. Kasu honetan, politika antiterrorista eta gerra bateratu egin ziren, eta Irak eta Afganistanen kontrako erasoak ahalbidetu zuten, besteren artean. Oso adibide garbia da inperialismoaren beharren arabera erabilera nolakoa izan daitekeen ikusteko; izan ere, AEBek hartu zuen aitzindaritzak, eta ardatz atlantista berriro ere indartu eta legitimatzeko baliatu zuen. Mendebalde demokratikoak bestelako herrialde ez zibilizatuen kontra egiten zuen guda zela ulertarazi zen. Adibide hori ere argigarria da terrorismo kontzeptuaren erabilera agerian uzteko, AEBek osatutako erakunde terroristen zerrendan Iran ere sartu baitzuten.

Era berean, eskubide eta askatasun murrizketak areagotu egin ziren, ezagun egin ziren Abu Ghraib edo Guantanamoko tortura irudiak, hegaldi ezkutatuak, behartutako desagarketak... Horiek

guztiak lehenago ere gertatzen ziren, esan bezala; gerora, ordea, demokraziaren izenean egin ziren, jendartearen zilegitasunik ez zuen etsai baten kontra. Hala, jendearen kontzientzietan txertatzen hasi ziren terrorismoaren kontrako salbuespenen onurak eta demokrazia burgesak babestearen beharra. Are gehiago, hainbat kasutan legalki babestutako salbuespenak bihurtu ziren batzuk.

Honek ikusarazi behar digu klase zapaltzaileek zeinen tresna indartsua duten, beharrezko izatekotan edozein disidentzia mota deuseztatzeko, bestela esanda, indar korrelazioa bere alde jartzeko, modurik gordinenean. Horrenbestez, ezin da ezkutatu ideologiaren eremuan kokatzen dela terrorismoa zer den edo zer ez den ezartzea. Ondorioz, borroka ideologikoak berebiziko garrantzia du hainbat borrokaren zilegitasuna eta babesa lortu ahal izateko.



5- Europar Batasuna eta terrorismoaren kontrako politikak

Testuinguru honetan, Europar Batasuna AEBrekin lerratu zen, beste behin ere. Finean, interes kapitalista berak dituztela agerian geratu zen, eta 2002an Kontseiluak Erabaki Markoa argitaratu zuen (2002/475/JAI). Bertan, terrorismoaren definizioa Estatu guztientzat finkatu eta 2002a amaitu baino lehen, haien legedietan terrorismoaren kontrako legedia berezia garatzea behartzen zituen.

Horren aurretik, Europar Batasunaren baitako sei estatuk soilik zuten terrorismoaren kontrako legedia berezia: Alemaniak, Espainiak, Frantziak, Italiak, Portugalek eta Erresuma Batuak. Gainontzekoek delitu arrunt gisa zigortzen zituzten “talde terroristek” egindako ekintzak. Legedia antiterrorista garatua zuten Estatuetakoa batzuetan, hainbat erakunde armaturen presentzia izan zen (RAF, Brigade Rosse, ETA, IRA, Terra Lliure, GRAPO, Liga Armada Galega...), eta uler daiteke haien aurka egiteko garatu zela salbuespenezko legedia berezia; ondorioz,

Europar Batasuneko agindua iritsi zenerako Estatu hauek dagoeneko etxeko lanak eginik zituzten. Are gehiago, esan daiteke Estatuak ere bata bestearengandik ikasi eta tresna errepresiboak partekatzen dituztela bakoitzaren esperientziaren irakaspenak trukatzuz; hala, laborategi errepresibo bilakatzen dituzte haien Estatuak eta borroka antiintsurrekzionalak.

Europar Batasunak emandako urratsak Estatuak izan zitzaketen muga legal burokratikoak arintzea ekarri zuen. Modu itsuan lerratu zen iritzi publikoa terrorismoaren kontra eta demokrazia liberalen defentsan, eta, hori baliatuz, erakunde terroristen zerrendak osatu ziren. Tartean, Euskal Herriko Askapen Mugimenduko hamaika antolakunde zerrendatu ziren, baita munduko beste hainbat erakunde iraultzaile ere. Ondorioz, dagoeneko bazegoen jazarpen errepresiboa areagotu, eta disidentzien kontra aritzeko erraztasun handiagoak izan ziren (atxilotutakoak Estaturen artean entregatzeko erraztasunak, polizien jarduna Estaturen mugaz haraindi, Europol...).

Aipatutako zerrendak oraindik ere indarrean daude; bertan daude, hala nola, Kurdistango Askapen Mugimenduaren PKK alderdia eta Palestinako FPLP alderdia.

6- Europar Batasuna

ikuspegi errepresibotik

gaur egun

Garrantzitsua da azpimarratzea, beraz, Europar Batasunak, eskualdeko burgesia hegemonikoaren edo burgesien tresna instituzional moduan, bat egiten jarraitzen duela inperialismo atlantistarekin. Horren adierazlea da Europar Batasunak NATOrekin duen harremana, ibilbide luzekoa, azken urteotan harremanak estutu baitituzte, nahiz eta barne kontraesanak eragin zitzakeen.

Sistema kapitalistaren berrantolaketa testuinguruan, aipatu bezala, beharrezkoa du burgesiak esplotazioa areagotzea, baina areago, inperialismo atlantistarentzat gatazka ere ezinbestekoa da hegemoniari eutsi nahi badio. Horren ondorioz, militarizazioa areagotzen da, eta baita erresistentziak saihesteko kontrola ere. Zentsura informatiboa, etsaiaren irudikatzea, hainbat posizioen kriminalizazioa eta besteen zilegiztatzea (ikur naziak, izan ikur hutsak zein pertsonak, lasaitasun osoz ageri dira etengabe kale eta komunikabideetan), Donbasseko herri errepubliken kontrako sarraskiaren isiltzea...

Testuinguru honetan ere apurka gailentzen ari da diskurtso nazionalista erreakzionarioa, egun dagoen statu quo egozkortzeko eta indartzeko balio duena; ondorioz, horren kontra egiten duena, adibidez diskurtso eta jardun abertzale iraultzaile batekin, etsaitzat jotzen da, eta Estatuak dagoeneko garatu dituen eta gara ditzakeen tresna errepresiboak erabiltzen dira hura jazartzeko.

Horrek guztiak eragile iraultzaile eta disidenteek kontra egitea ahalbidetzen du. Iazko abenduan, Suediak Mahmut Tat Kurdistango askapen mugimenduko kidea entregatu zuen Turkiara, 2015ean babes politikoa eskatu eta gero. Deigarria da kasu hau, izan ere, Suediak eta Finlandiak NATOrekin sartzea eskatu zutenean Turkiak haien sarrera baldintzatu baitzuen, bi Estatu horiek terrorismoaren kontrako borrokan sakontzera behartuz.

Estatu Frantsesak 1984tik du gatibu Georges Ibrahim Abdallah komunista libanoarra. 1987an bizi osorako espetxe zigorra ezarri zioten, eta, 1999tik baldintzapeko askatasuna eskatzeko eskubidea badu ere, beti ukatu diote. 2013an, epaileek baldintzapeko askatasuna onartu bazioten ere, AEB eta Israelen presioak medio, oraindik espetxean jarraitzen du. Antzeko egoera bizi izan zuten Ion Parotek eta Jakes Esnalek. Lehenengoari sei aldiz ukatu zioten baldintzapeko askatasuna, bigarrenari bitan, eta biek ala biek eman zituzten 32 urte Estatu frantseseko kartzeletan. Ezin dugu ahaztu Estatu frantsesaren kasuan larrialdi egoeraren erabilerak nola ahalbidetu dituen urteetan zehar inpunitate espazioak.

2022ko azaroko alemaniar Estatuko barne ministroen konferentzian, hainbat antolakunde palestinar (baita Palestinako borrokarekiko elkartasuna lantzen dutenak ere) lege kanpo uzteko mehatxua egin zuen, diskurtso antisemitak eta antiisraeldarrak hedatzen ari omen direlako. Israeleko Estatu sionistak debekatu egin du bandera palestinarra publikoki erakustea, ikur terrorista delako.

Greziar Estatuan borroka handiak izan dira unibertsiteetako kanpusetan poliziari sarrera

librea onartuko dion legea onartzeagatik. Europar Batasuneko kide diren estatuek poliziaren ofentsiba abiatu dute, orain arte izandako jardunerako eremua handitzeaz gain, izua sortzera bidean gogor jazartzen hasi dira jabetza pribatuaren aurkako erasoak, lapurretak eta okupazioa kasu.

Krisi testuinguru honetan, Europar Batasunak, kapitalaren beharrei erantzuten badie ere, Estatuaren gain utzi du bere baitako erresistentziak, disidentziak eta mugimendu iraultzaileak erreprimitzeko ardura.



7- Euskal Herriaren kasu zehatza

Euskal Herriaren kasuan ikus dezakegu nola askapen borrokaren historian zehar aipatutako zikloak ere gertatu diren. Altxamendu faxistak frankismoa ezartzea ekarri zuen, eta hasierako urteetan altxamenduaren logikan uler daitezke desagerketak, exekuzioak, umiliazioak... etsaiaren deuseztatze logika modu argi batean.

50eko hamarkadatik aurrera, etsaiaren deuseztatze planak beste forma batzuk hartu zituen, nahiz eta diktadura izateari esker ezartzen ziren salbuespenezko politikak disidentziaren kontra, hala nola fusilamenduak, tortura, erailketa estrajudizialak, espetxeratzeak, epaiketa sumarioak... Burgoseko prozesuak eta 1977ko irailaren 27ko Txiki eta Otaegiren fusilamenduak (FRAPeko beste hiru kiderekin batera) gertakari esanguratsuak izan ziren garai hartan. Estatu frantsesak, hasiera batean, errefuxiatu politiko estatusa onartu zien Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoara ihesi alde egindako euskal herritarrei, baina gerora espainiar estatuarekin garatutako elkarlanaren ondorioz, iheslariak jazartzen hasi zen.

80ko hamarkadarekin batera, polizia gehiegikeriak areagotu ziren, tortura kasuak biderkatu (hainbat izan ziren komisaldegietan eraildakoak), drogaren sarrera polizia etxeetatik bultzatu zen (heroina bereziki, baina baita speeda eta bestelakoak ere)... Gerra zikinak ere oihartzun berezia hartu zuen, eta hainbat talde sortu ziren: AAA, BVE, ATE, GAL... Hamarkada hartan, bestalde, espainiar Estatuak euskal preso politikoen kontrako dispertsio politika

diseinatzeari eta aplikatzeari ere ekin zion. Frantsesak segituan egin zuen berdina.

ZEN Plana ere garai honetakoa da. 1983an abian jarritako plana eremu politiko, legal, sozial eta polizialean ekiteko estatuaren estrategia errepresiboa izan zen. Ondo aztertuz gero, ikusiko dugu CIAk Latinoamerikan abiatutako kontrainsurgentzia eskuliburuen parekoa dela, baina Euskal Herrian kokatua.

Industria-birmoldaketa, adibidez, ezinbestekoa izan zen Europako eremu ekonomikoa sortze bidean Frankismoan abiatutako konbergentziazko politika ekonomikoak garatzeko, eta borroka biziak piztu ziren, besteak beste, Euskaldunan eta Labe Garaietako borroketan. Garrantzitsua zen espainiar burgesiarentzat Euskal Herri langilearen borroka amaitzea, eta Euskal Herrian langile klasea antolatzen zuen mugimendua deuseztatzea funtsezkoa zen horretarako. ZEN Planaren helburu nagusia, beraz, Euskal Herriaren askapen nazional eta sozialaren aldeko borrokaren deslegitimazioa eta babes sozialaren galera zen. Legedi antiterrorista orduan txertatu zen espainiar Zigor Kodean.

90eko hamarkadan, aldiz, Euskal Herriko nazio askapen mugimenduak nazio eraikuntza estrategia abiatu zuen. Goian ikusi dugun moduan, hamarkada horren amaierako doktrina antiterroristaren lehen saiakerak Euskal Herrian eman zituen Estatu espainolak. Estatu frantsesak bere politika asimilatzailekin jarraitzen zuen, nahiz eta garai hartan Estatu espainolarekiko elkarlana dezente estutu eta hainbat ekinbide judizial eta polizial ere abiatu zituen.

Europar Batasunaren osaketarako hamarkada garrantzitsua izan zen. Behar-beharrezkoa zen proiektu kapitalistaren garapenerako oztopo izan zitekeen edozein erresistentzia desagerraraztea.

Gaur egun aipatutako tresneria errepresibo guztiak indarrean jarraitzen du, nahiz eta ez den agerikoa, ETaren desagertzea sorturiko testuinguru berria dela eta. Baina legedia antiterrorista ez da desagertu, oraindik ere hainbat eta hainbat euskal herritarrek espainiar Audientzia Nazionalera joan behar dute deklaratzera edo epaituak izatera, terrorismo delituak egotzita. Zaila da modu egokian egitea Euskal Herriaren askapen borrokaren edozein eztabaida edo transmisio, terrorismoari gorazarre egiteagatik akusatu eta espainiar Audientzia Nazionalan amaitzeko arriskua baitago.

Dena den, egungo testuinguru errepresiboan badira hainbat faktore kontutan hartzekoak. Batetik, Euskal Herrian 2010eko hamarkadaz geroztik sortu diren antolakunde eta eragile berrietako batzuen izenak espainiar komunikabideetan azaldu dira, haiek terrorismoarekin lotuz. Aipatutako guztia orain arte aipatu eta aztertutako doktrina antiterroristaren baitan kokatzen da argi eta garbi.

Bestetik, 2010eko hamarkada amaieran hainbat komunikabide ere hasi ziren aipatzen Herrialde Katalanetan sortzen ari ziren etxebizitza sindikatuak antolakunde kriminal izatearekin

lotzeko aukera, ondorioz espainiar Audientzia Nazionala (eta espainiar Zigor Kodeko salbuespen legedia) tartean sartuz.



Horrekin lotuta ikus dezakegu nola Euskal Herrian hamaika lagun atxilotuak, auziperatuak eta epaituak izaten ari diren hainbat mobilizazio, protesta edo eragileetan parte hartzeagatik. Era berean, Mozal Legearen ezarpenak ehunka milaka euro ordainarazi dizkio Euskal Herriko hamaika eragile eta norbanakori. Kasu hauetan guztietan eskatutako espetxe zigor altuek eta ordaindu beharreko diru kopuru izugarriek agerian uzten dute kasu hauen salbuespenezko izaera eta, ondorioz, motibazio politikoa. Kasu honetan ez da Audientzia Nazionala edo salbuespenezko epaitegirik tarteko, baina ondorioa berbera da.

Horietaz gain, agertzen ari dira jada militante politikoei zuzendutako galdeketak, *ad hoc* eginiko kontroletan, mehatxuak, kolaborazio eskaerak... Egungo krisi testuinguruan, langile klasearen kontrako oldarraldi izugarri honetan, aipatu dugun tresneria hori guztia Estatu espainolaren zein frantsesaren eskuetan dago.

8- Ondorioak

1.- Klase borrokaren erdigunean kokatzen den elementua da errepresioa. Terrorismo esaten zaio langile klasearen borrokari, eta gerra edo errepresioa, berriz, burgesiaren eta klase kapitalisten indarkeriari. Estatuaren helburuetako bat da errepresioa modu barean ezartzea eta berezkoa duen izaera biolentoa ezkutatzea, ez dadin agerikoa izan langile klasearen zapalkuntzak berekin dakarren indarkeria.

2.- Garrantzitsua da errepresioa bera sistema gisa ulertzea eta ez modu estatiko, sektorial, isolatu eta ez sistemikoetan. Sistema errepresiboaz modu dialektiko, mugikor, kontraesankor, totalizatzaile eta sistemikoan pentsatu behar da.

3.- Eguneroko talka politikoan, emaitza bi aldeen arteko indar korrelazioaren arabera izango da. Horrek egiten du errepresioa ezinbesteko elementu. Garrantzitsua da hori krisiaren teoria marxistarekin eta irabazi tasaren beheranzko joerarekin lotzea, Zuzenbidearen bitartez burgesia indar korrelazioa bere alde jartzen saiatuko baita, langile klasearen antolaketa oztopatuz eta kriminalizatuz, bereziki krisi garaietan. Zuzenbidez harago, historian zehar burgesiak bestelako tresnak ere garatu dituen mugimendu iraultzaileak erasotzeko.

4.- Egia bada ere Estatu burgesek mekanismoak badituztela langile klasearen antolakuntza eta

borroka erreprimitzeko, politika antiterroristei esker inpunitate handiagoz jokatzeko; eta modu batetan, Estatuaren kontrola areagotzeko eta edozein disidentzia kriminalizatzeko tresna dira.

5.- Terrorismoaren kontrako borrokan, Europar Batasunak inperialismo atlantistaren beharrei erantzun eta bere baitako Estatuak izan zitzaketen muga legal eta burokratikoak arintzen lagundu du, mugimendu iraultzaile eta bestelako disidentzien kontra jotzea erraztuz.

6.- Krisi egoera honetan, Europar Batasunak garatutako doktrina antiterroristak indarrean jarraitzen du. Bertako Estatuak dute ardura barne disidentzia erasotzeko, haien legedi, aparatu judizial eta poliziaren bitartez.

7.- Euskal Herriaren askapen nazional eta sozialerako borrokak jasandako errepresioa kapitalaren beharren arabera izan da eta mundu mailako joeren antzekoa.

8.- Gaur egun, Euskal Herriaren kontra espainiar Audientzia Nazionalen garatutako doktrina antiterrorista ez da desagertu, eta geroz eta agerikoagoa da epaitegi arruntak (lokalak) hartzen ari diren protagonismoa.

9.- Beharrezkoa da Euskal Herriko langile klasearen askapen borrokaren kontrako eraso gisa ulertzea hauek guztiak eta gure borrokaren historiaren baitan kokatzea.

Europar Batasunak bultzatzen eta Estatu espainiarrak nahiz frantsesak garatzen duten errepresioaren aurrean, herri langileok **APURTU KAPITALAREN EUROPA.**